



UDALETXE BERRIA EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak ikaztegieta udaletxe berria egiteko 50.000 euro ematea onartu du >3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2010-07-22**

VIII. URTEA 2.058. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



O. PENAGARIKANO

JUANTXO ZEBERIO MUSIKARIA

«Barne bidaiak egiteko musika aproposa da 'Baldi' diskoak eskaintzen duena»

TOLOSA Maddi Oihenart abeslari zuberotarrarekin kaleratu berri du lana; jazz eta folk ukituak dituzten abestiak bildu dituzte bertan 7



Haurrek jolasteko gune berria dute orain. E. MAIZ

Haur parke eta kiosko berria egin dituzte herriko plazan

BALIARRAIN Plaza oinezkoentzat egokitu dute eta etzi egingo dute inaugurazio ekitaldia 6

Gaur askatuko dute, fidantzapean, Mikel Ayestaran

VILLABONA 18.000 euroko bermea ordainduta aterako da kartzelatik euskal presoak 2



XII. HITZA
Argazki
Lehiaketa
Animatu eta
parte hartu!

argazkiak@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa



**NORA
BIDALI?**





Gari Ibarluzearen herritarrek elkarretaratzea egin zuten Ibarra atzo arratsaldean. A. IMAZ

Ayestaran gaur askatuko dute; Ibarluzeak abuztuaren 12an jakingo du epaia

Politika » 18.000 euroko berme ordaindu ondoren aske utziko dute Mikel Ayestaran; gaur bertan iritsiko da herrira.

ERREDAKZIOA

Garikoitz Ibarluzea ibartarraren aurkako euroagindu epaiketa atzo burutu zen Londresen. Defentsak gaztearen askatasuna eskatu zuen eta «kasuan dauden irregulartasunak» salatu zituen, izan ere, hiru euroagindu desberdin daude Garikoitz Ibarluzearen aurka, eta hiruak, modu desberdinetan formulaturik.

Fiskalak adierazi zuenez, «euroagindua Espainiaren konfidantza oinarritu behar da» eta dau den arazoak Espainiako Entzutegi

Nazionalen konponduko omen dira. Epailak abuztuaren 12an jakinaraziko du euroagindua onartzen duen ala ez, hau da, Garikoitz Ibarluzea Espainiaratua izango den ala ez.

Londresen, epaitegiaren kanpoin, elkarretaratzea egin zuten gazteari elkartasuna azaltzeko asmoz. Bestalde, hainbat senide epaiketan izan ziren eta hauen esanetan gaztea «ongi eta indartsu» aurkitu zuten.

Mikel Ayestaran

Euskal presoekin jarraituz, Mikel Ayestaran billabonatarra gaur askatuko dute 18.000 euroko berme ordaindu ostean. «09:00etan gestio guztiak egingo dituzte eta ondoren aske utziko dute». Egun Navalcarnero espetxean aurkitzen da. Bertatik Euskal Herrira

best edo sei orduko ibilbidea dago autoz.

Mikel Ayestaran azaroaren amaieran atxilotu zuten, gazte independentisten aurka egindako polizia operazio zabalean. Irati Mujika amezketarra eta Haritz Lopez tolosarra ere atxilotuak izan ziren sarekada honetan.

Ayestaranekin batera, Xumai Matxain, Zaldibiakoa, eta Bittor Gonzalez, Gasteizkoa, askatuko dituzte. Hiru gazteek tratatu txarrak salatu zituzten atxiloaldian.

Etzi hasiko diren Villabonako Jaietan Remi Ayestaran omenduko dute. Duela urte bete inguru zendu zen alkateordea, Ertzaiztaren presentziaren aurtean. Espetxea utzi ondoren, omenaldiketaldia hauetan egongo da Mikel Ayestaran, Remi Ayestaranen anai gaztea.

Gutunak

Ibarrako Udala eta oinezkoen pasabideak

Gure herriko Udalak oinezkoen pasabideen inguruan duen jarretarekin haserre dagoen ibartar bat naiz. Honen arrazoia laburtuta azaltzen saiatuko naiz.

Legeak dionaren arabera, ezin dira oinezkoen pasabideetan marra txurien artean dauden hutsuneak beste kolore batez pintatu (168. Artikulua; C Apartatua). Zorritzarrez gaztekeraz bakarrik aurkitu dut eta honela dio: «*Marca de paso para peatones: Una serie de líneas de gran anchura, dispuestas sobre el pavimento de la calzada en bandas paralelas al eje de ésta y que forman un conjunto transversal a la calzada, indica un paso para peatones, donde los conductores de vehículos o animales deben dejarles paso. No podrán utilizarse líneas de otros colores que alternen con las blancas.*».

Baten batek informazioa egiaztatuta nahi izan ezke, DG Tren orrialdean ageri da legea: http://www.dgt.es/was6/portal/c/ontenidos/documentos/normas_le_gislacion/reglamento_trafico/reglamento_trafico063.pdf

Estatuko aldiakari ofizialaren publikazioa hau da: <http://www.boe.es/boe/dias/2003/12/23/pdfs/A45684-45772.pdf>

Ondoren legearen aldaketa bat egon zen baina ez zuen artikulua horretan eraginik izan: http://www.dgt.es/was6/portal/c/ontenidos/documentos/normas_le_gislacion/reglamento_trafico/reglamento_trafico069.pdf

2009ko urriaren 10ean, informazio guzti hau aztertu ondoren, udaletxean idatziko kexa bat sartzeko erabakia hartu nuen. Biztanleen segurtasunarengatik kezkatuta hartutako erabakia izan zen, adibidez ni, motorraz eta bizikletaz ibiltzen den biztanlea naiz. Motorrean ibiltzen gareno ondo dakigu euria egiten duen bakoitzean, nola irristatzen den pasabide hauetan. Oinezkoen artean, nork ez du sustoren bat izan pasabide

hauek bustita direnean? Nire usteetan, udaletxe gehienek horrelako idatzi-salaketa baten aurrean, epe bat izaten dute erantzuteko.

Nire kasuan ez dakit hau bete zuten.

2009-11-19an, arratsaldeko 20:30etan, herriko beste arazo batengatik herritar talde bat udaletxearekin bildu ginen. Bilera hau amaitu zenean bertan zeuden Udaleko ordezkariek (alkatea, alkateordea, ...) nire kexaren berri bato zuten galdetu nien (hilabete pasatxo jada). Orduan Obra eta Zerbitzuen informazio Batzorde Iraunkorrek lehendakariak esan zidan, gaia aztertu zutela eta tratamendu berezi bat aztertzen ari zirela oinezkoen pasabideetan emateko; pintura gorri berezi bat. Hau entzun bezain laster nire erantzuna garbia izan zen, legeak dioena bete behar zutela (beraiek hainbestetan aipatzen duten bezala, legea bete arazten ari direla esaten dutenean) eta oinezkoen pasabideetan pintura zuria bakarrik uzteko eskatu nien.

Honen ondoren, 2010-12-03an jaso nuen erantzuna etxean (kexa sartu nuenetik 2 hilabetera). Udalaren erantzunean, hitzez esan zidana kontatzen zuen, hau da literalki jaso nuen: «Kexa honetan adierazten da oinezkoen bideak bakarrik zuriz margo daitezkeela. Oinezkoen pasabideak egokien markatzea bilatzen da eta dagoen araudira egokitzea».

Jada 2010eko uztailean gaude eta irtenbiderik ez diote eman arazo honi, oinezkoen pasabideak oraindik gorritz eta zuriz daude. NOIZ ARTE?

Udaletxe honek zer pentsatzen du? Denbora pasatzen uztean gauzak ahaztu egiten direla? Nire usteetan oker dabilta.

Bukatzeko, 2010eko uztailean 15ean publikoki eskatu nahi diot Ibarra Udalarari denon hobe beharrez, oinezkoen pasabideetan pintura gorria kendu eta legea bete dezala lehenbailehen.

Besterik gabe, gero arte.

Karlos Mendibil. Ibarra.

Tolosako atari bati su emateagatik 10 urteko espetxe zigorra

ERREDAKZIOA

2008ko urriaren 28ko gauean, tolosar batek Korreo kaleko atari batean sua piztu zuen. Bizilagunak euren etxetik irten beharrean aurkitu ziren.

Gipuzkoako Auzitegiak jakinarazi duenez, bi urte beranduago, 35 urteko A. G. A.k espetxera joan beharko du. Alde batetik 10 urteko zigorra jarri diote tolosarrari eta be-

retetik, 5.000 euroko kalte ordainak ordaindu beharko ditu. Diru hau bizilagunentzat izango litzateke.

A. G. A.k errugabea zela esan zuen epaiketan. Portalean aurkitutako zigorro batetatik lortutako DNA frogak, ordea, 35 urteko tolosarra bertan egon zela baieztatu omen dute.

Tolosarrak arazo psikologikoak omen ditu.



Mikel Ayestaran. E. EZEIZA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

G Gutunak

Udalak egindako idatziari erantzunaz

Nik, Elixabete Nosellasek, Alurrdantza taldeko arduradun eta lehendakari gisa, ondorengo eskatzen diot Udaltzatza honi, ERRESPETUA!!! Errespetua, inongo interese pertsonalik gabe, Alurrr proiektua babesten eta sustatzen dutenekiko.

Itzisi berriak gara, uztailearen 13ko goizean ailegatu bainekin. Eta hanka bat Ibarrako plazan jartzeko, lagun, guraso eta abarrek, Ibarrako Udalak prentsiari luzatutako idatziaren aurrean zuten haserrea adierazi zidaten. Triste nago. Frantziaren ospatutako jaialdi batetik bueltan gara, non, *Kulturagatik, denak bat eginda* zen leloa. Gure kultura, hizkuntza eta ohiturak trukatu ditugu jaialdi horretan, Peru, Lituania, Indonesia... bezalako estatuetako profesionalekin. Eta horien denen artean egon da Alurrr, Ibarra eta Euskal Herria ordezkatzuz.

Han bizitutako guztia agertzeko ilusioz gentozen, eta zas!!! Berritoren gure Udaltzatza kritikatzan ari da, eta gauzak berak nahi dituen moduan kontatzen.

Alurrr-ek jende talde handia biltzen du bere baitan, eta asko gara proiektu honetan parte hartzen eta bultzatzen dugunak. Gainera, harro gaude, Ibarra bezalako herri txiki batean, horrenbeste haur, gazte, heldu... biltzen dituen dantza talde bat daukagulako. Bisitatu ditugun udalherri eta toki guztietan, gure herriko enbaxadore sentitu gara. Hori dela eta, nire ustez, Alurrr, eta beste hainbat kultur eta kirol talde egoteak Ibarran, aberasgarriago egiten du gurea bezalako herri txiki bat.

Baina, alderantziz, prentsan argitaratutako idatzia irakurrita, bakarri, Udaltzatza erabaztu egiten diela eta ez dutela gustuko gure aurrera eramaten dugun proiektua. Gure ustez, harro egon beharko luketenean. Egia da, herriaren jabetzako bi lokal egunero

erabiltzen direla. Alde batetik, astelehenean, 100 haurrek, bestetik, asteartean, beste 105 haur nahiz gaztek. Asteazkenean, 50 gaztek, eta horrela asteko egun guztietan. Ez al da hau nahikoa eskaera, bere erabilerrako?

KULTURAKEZDUDIRURIK EMATEN! Herriari nortasun eta aberastasun kulturala baizik!

Bestalde, egin ditugun ekintzak direla eta, Udaltzatza jaso dugun diruari dagokionez, adieraziz beharra daukat, 2009-2010 ikasurteko dagoeneko amaitu dela, eta oraindik ez dugula jaso, urtero, urteko ekintzen memoria aurkeztu osten, jasotzen dugun laguntza. Bertan, urtean zehar egindako jarduerak agertzen ditugu, eta egindako gastuak behar bezala justifikatu, orain arte indarrean egon den legegia beteaz.

Aurten Udaltzatza erabaztu egin eta onartu ditu. Honetarako, ez du inplikaturik inongo taldearekin hitz egin, edo deitu, honen berri emateko. Gai-

nera, ez ditu kontuan hartu herriko talde ezberdinek aurkeztutako alegazioak, tartean Alurrr-enak. Dekretazoz Ordenantza hauek onartu ostean, formatu berriko diru-laguntza eskaera orri bat bidali zigin, non puntu bat agertzen den esanaz, ezagutzen eta onartzen ditugula Ordenantza berriak. Aurkeztutako alegazioekiko koherentzia mantentzearen modu honetan, ezin dugu eskaerari sinatu. Hori dela eta, aipatutako puntua kenduta aurkeztu genuen.

Ordutik, denbora igaro da, eta ikasurte honi dagokion laguntza ekonomikoa jaso ez arren, aurrera jarraitu dugu aurreikusitako jarduerekin. Gainera, Udaltzatza erabaztu ondoren, 20an eta bertan honakoa zioen: «Udalerriko Gobernu Batzarrak, aho batez honakoa onartzen du: inongo erabakirik ez hartzea Alurrr dantza taldeak aurkeztutako diru-laguntza eskaerari dagokionean».

Honen aurrean, hala ere, jende

askoren laguntza eta elkarlanari esker aurrera jarraitu dugu jarduerekin: eskolak, Olentzero, Izaskungo jaia, Alurrr eguna, San Joan bezperako sua (aurten estreinakoz aurrera emandako ekimena), Gipuzkoako Aurreko txapelketan garaipena lortu dugu... Eta esaten duzue lotariko herri bat besterik ez dugula nahi?

Orain arte aipatutako zenbat jardueratan hartu duzue ba zuek parte?

Hasiera esan bezala, errespetua eskatu amaitzen dut. Boluntario gisa, eta inongo interese gabe, proiektu honetan parte hartzen duten guztiekiko errespetua. Gure helburuak argiak dira: gure kultura mantendu, garatu eta zabaltzea. Horretarako, ilusio guztiarekin egiten dugu lan, irmotasunez eta esfortzu handia eginaz, inongo interese pertsonal eta alderdikoirik gabe.

Eli Nosellas (Alurrr dantza taldeko ordezkaria eta lehendakaria). Ibarra.

Ehunmilak probako antolakuntzak eskerrak eman nahi izan ditu

Kirolak » Lehen ultra traila egin ostean, balorazioak egiten ari dira; jendeari egindako lana ere eskertu nahi izan diote.

ERREDAKZIOA

Ehunmilak lehen ultra traila antolatuta ostean, balantzea egiten ari dira antolatzaileak. Baina, horretan batera, eskerrak eman nahi izan dizkiete, ekimen hau posible egin duten hainbat eta hainbat lagunei. Denera, 3.000 boluntario inguru aritu dira lanean, proba ongi atera dadin, eta horietako asko, eskualdekoak izan dira. Bertako bost herritatik igaro baita proba.

Alde batetik, Zelatun, Tolosan, Alton, Amezketan eta Larraitzen egondako boluntario guztiei eskertu nahi die Unai Agirre Tolosaldeko arduradunak. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, «laguntza guztia eman zutelako». Baita, proba ikustera eta parte-hartzaileak animatzera hurbildu ziren ehunka lagunei ere. Eskerrak eman nahi izan dizkiete ere, Errezil, Albiztur, Alton, Amezketan eta Albatzisketa eta Tolosako Udalei, Zelatuneko bordako jabeari, Txolarrerriari, Usabal kiroldegian dagoen Bide-Bide tabernari eta HITZARI eta 28 kanalarari. Azkenik, Aia, Asteasu, Larraul, Alkiza, Hernialde Tolosa, Alton, Bedaio, Amezketan eta Albatzisketako herritarrei.

Udaletxe berria «amets» izatetik, errealitate izatera laster igaroko da

Ikaztegieta » Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektua laguntzea onartu du; Landagipuzkoa 32ren bidez egingo du hau.

ERREDAKZIOA

Landagipuzkoa32 programari dagokion Ikaztegieta udalerriko inbertsio plana onartu du Diputatu Kontseiluak azken bileran. Ikaztegieta udaletxe berri bat eraikitzeko proiektua Landagipuzkoa32 programan aukeratutako inbertsioetako bat da.

Korporazioaren asmoa eraikin berri bat Udaltzatza lurretan egitea da, egungo udaletxea egoera larrian baitago. Bestalde, Ikaztegieta herriko espazio publikorik. Proiektua oso erakarria eta interesgarria da, herritarren bizitza-kalitatea hobetze aldera eta udaleko zerbitzuak hobeto kudeatze eta eskaintze aldera.

Eraikin berriaren kokalekua elizatik, apaizetxetik eta herriko eskolatik hurbil dago. Erabileren artean, udal-bulegoak, osasun-zerbitzua, gizarte-zerbitzuko aretoa,



Eskolaren aldamenean dagoen berdegune honetan izango du kokalekua udaletxeak. HITZA

liburutegia eta balio anitzeko gela bat nabarmen dira. Hiru solairuko eraikina izango da, egurrezko egitura izango du eta energia berritzagarria erabiliko du.

Inbertsioen kostu osoa 962.000 euro da: horietatik 500.000 euro Foru Aldundiak jarriko ditu eta

gainerakoa Ikaztegieta Udaltza. Gipuzkoako Foru Aldundiak aginduta, Etorlur, Gipuzkoako Lurra elkargo publikoak Udaltzatza bakoitzaren inbertsio planak egingo ditu eta, halaber, plan horietan aurreikusitako inbertsioak gauzatu ditu.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balizak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreeragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Arropak.** Bizikletan ibiltzeko arropak salgai (kamisetak, kuloteak, txaketak...). Euskaltel markakoak. Oso berriak. XXL neurrikoak. Interesatuak deitu 637 94 8 12ra.

ALOKAIRUA

■ **Baserrira edo borda.** Eskualdean baserrira edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuak deitu 634 45 9110 telefono zenbakira.



Abuztuaren hasieran, Bufoi ikastaro trinkoa egiteko aukera dago. HITZA

Antzerkia naturan eta Bufoi ikastaroa Asvinenearen eskutik

Aduna » Miren Tirapu eta Ana Perez izango dira irakasleak. Ikastaro trinkoek ikasle kopurua mugatua izango dute.

ERREDAKZIOA

Adunako Asvinenea elkarte kulturalak, bi ikastaro prest ditu hurrengo bi astetarako. Hurrengo asteburuan Natura Antzerkia izango da eta abuztuaren hasieran, Bufoi edo txantxalari ikastaroa eskainiko dute. Lehenengoari dagokionez, naturaren inguruan ibiliko dira eta leku bat aukeratu ostean, eszenatokia eraman eta transmititu egin beharko dute. Metodo eta errekurto berriak ikasteko aukera izango dute. Bufoi ikastaroan berriaz, parodiak egingo dituzte.

Izena emateko aukera

Izena emateko aukera oraindik irekita dago eta bi bide daude; alde batetik Asvinenearen webgunean sartuta egin daiteke (www.asvinenea.com). Bertan dagoen fitxa des-

kargatu, bete eta asvineneacursos2010@gmail.com helbidera bidali beharko da. Antolatzaileak jarriko dira interesdunekin harremanetan. Bestetik, zuzenean 647 2014 01 telefono zenbakira deituz ere egin daiteke. Informazio gehiago beraien webgunean eskura daiteke.

» IKASTAROAK

Antzerkia Naturan

- **Irakaslea.** Miren Tirapu.
- **Noiz.** Uztailaren 30, 31 eta abuztuaren 1ean.
- **Ordutegia.** Hilak 30ean: 18:30etik, 20:30era. Beste bi egunetan, 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 20:30era. (20 ordu).
- **Prezioa.** 90 euro. (bi bazkariak barne).

Bufoi ikastaroa

- **Irakaslea.** Ana Perez.
- **Noiz.** Abuztuaren 7 eta 8an.
- **Ordutegia.** 09:30etik 14:00etara eta 15:30etik, 17:30era.
- **Prezioa.** 80 euro. (bi bazkariak barne).

Faborito argirik gabe jokatu da igandean Ordiziako Klasika

IÑAKI GURRUTXAGA/GOIERRIKO HITZA

Euskal Herrian egun bakarrean jokatzen den probarik zaharrenaren hitzordua ere gero eta gertuago dago. Igandean jokatu da Ordiziako Klasikaren 87. ekitaldia, eta Frantziako Tourra dela eta puntapuntako txirindularirik izango ez bada ere, maila apaltxeagoko ziklista sorta biltzea lortu dute aurtenera Txapel Gorriko elkarteko antolatzaileek. Azken urteetako ibilbidea izango da aurtenera: bost aldiz igoko dute Abaltzisketa gaina eta bitan Altzokoa. 167,5 kilometroko luzera du ibilbidea, eta 40 kilometro orduko batez bestekoa hartuz gero lau orduen bueltan bukatuko dute proba.

Ez da faborito argirik Ordiziako Klasika irabazteko, Jose Luis Sanz probaren koordinatzaile nagusiak adierazi duenez. «Euskaltel Igor Anton, Beñat Intxausti eta Gorka Izagirrekin dator. Izagirre hautagaia izan daitekeela diote. Mosquera ere hor ibiliko dela uste dut, eta Carmiooroko Pardilla irabaztera datorrela esan dit bere zuzendariak. Madrilgo Itzulia irabazi du asteburuan eta oso indartsu dago». Caisse d'Epargnek David Arroyo izango du taldeburu (aurten Italiako Giroan bigarren sailkatu da), eta Txente Garcia, Pablo Lastras eta Xabier Zandio izango ditu harenekin. Iazko irabazle Jaume Rovira ere irteeran izango da, eta beterea-

no bat izango du taldekide: Paco Mancebo.

UCI Pro-Tourreko hiru talde Ordiziako Klasika UCI Europa Tour mailako proba da, eta Pro-

Tourreko hiru talde bilduko ditu aurtenera: Euskaltel-Euskadi, Caisse d'Epargne eta Amporen babesle-tza duen Footon-Servetto. Kontinental mailako bi euskal talde ere ariko dira: Orbea eta Caja Rural.

» TALDEAK ETA BURUAK

- **Heraklion Kastro Murcia.** Jaume Rovira eta Paco Mancebo.
- **Caisse D'Epargne.** Arroyo, Txente Garcia, Lastras eta Zandio.
- **Euskaltel-Euskadi.** Igor Anton, Beñat Intxausti, Gorka Izagirre eta Romain Sicard.
- **Footon-Servetto Ampo.** David Vitoria eta Thomas Faiers.
- **Andalucia Caja Sur.** Angel Vicioso eta Manuel Calvente.
- **Xacobeo-Galizia.** Ezequiel Mosquera eta Vladimir Isaichev.

- **Carmioero NGC.** Sergio Pardilla eta Fran Ventoso.
- **Caja Rural.** Jose Herrada, Gari-koitx Bravo eta Fabricio Ferrari.
- **Burgos 2016.** Andres Antuña.
- **Orbea.** Jon Izagirre.
- **An Post-Sean Kelly.** Kim Borry.
- **Bretagne-Schuller.** Jean Marc Bideau.
- **Madeinox-Boavista.** Danaël Petrov eta Joao Benta.
- **Roubaix Lille-Metropole.** Jocelyn Bar eta Cedric Pineau.



Iaz ihes egindako taldetxo bat Alegiatik pasatzen. R. CALVO

» ORDUTEGIA 40 km/h-ko batez bestekoa kontuan hartuta

- **10:00.** Ordizian abiatu.
- **10:15.** Alegia.
- **10:26.** Amezketeta.
- **10:31.** Abaltzisketa gaina (3 m).
- **10:47.** Ordizia (Tarteko helm.).
- **10:53.** Legorreta.
- **11:19.** Abaltzisketa gaina (3.).
- **11:29.** Zaldibia.
- **11:34.** Ordizia (TH).
- **11:51.** Alegia.
- **12:06.** Abaltzisketa gaina (3.).
- **12:22.** Ordizia (TH).
- **12:25.** Itsasondo (anoa-gunea).
- **12:44.** Altzokoa gaina (3.).
- **12:49.** Abaltzisketa gaina (3.).
- **13:15.** Ordizia (TH).
- **13:31.** Alegia.
- **13:37.** Altzokoa gaina (3.).
- **13:52.** Abaltzisketa gaina (3 m).
- **14:02.** Zaldibia.
- **14:08.** Ordizia (helmuga).



Errepide bazterra babesten

LARRAUL » Duela hilabete batzuk, Larraul herrira doan errepide guztia berritu zuten. Asteasuko bidegurutzetik hasi eta herri guneraino doan zatian, asfalto berria bota zuten eta zati batzuetan, errepidea zabaldu

ere egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Orain, aste honetan, errepide bazterrak babesteko hesia jartzen ari dira. Bide osoan jarriko ez badute ere, zatirik handiengan burdinezko hesia jarriko dute. E.MAIZ

Lizartza

Etxebizitza libre beten abantaila guztiak, bai eta saltzeko eskatasuna ere; zozketan zain egon gabe eta kalitateko akaberekin, etxebizitza tasatu beten prezioan.

Etxebizitza libreak tasatuen prezioan

- Hiru logela, garajea, trasterokua, terraza
- 198.334€ + I.T.Z. (33.000.000 psoe + I.T.Z.)
- Legelak, egongelak eta sukaldeak erabat kargosidekoak

- Finantziaketa erreserbatuak
- Inbertsio librea
- 2016ko abuztuaren 8a baino lehenago egindako erreserbak sukaldeko altzariek mantenturik jasoko dituzte

636 666 147 Leizorako Bulegoa, 12. katea, nafarroa.com/leizorako_bulegoa/leizorako

948 175 709 Leizorako Bulegoa, 12. katea, nafarroa.com/leizorako_bulegoa/leizorako

LARRAUL

'Tolosaldean barrena' gida, Tolosaldea ezagutzeko

Aisialdia » 24 ibilbide biltzen ditu eskuliburuak; 15 oinez egitekoak dira eta gainontzeko 9ak, berriz, bizikletaz.

ERREDAKZIOA

Turismo produktu berria kaleratu du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK; 24 ibilbide biltzen dituen *Tolosaldean barrena* gida, hain zuzen.

Ibilbide hauei esker Tolosaldea ezagutzeko aukera izango duzue, eskualdeko 28 herriak bisitatuz. 24 ibilbideetatik 15 oinezkoak dira eta beste 9ak, berriz, bizikletaz egitekoak dira.

Oinez egitekoak direnak Tolosaldea Tour-ek eta eskualdeko udalek duela urte batzuk seinalez-tatu zituzten mendi bideetan barrena dira, informazioa ere bertan jaso dugularik, eta bizikletazkoak Joxemi Saizarrenak dira eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN 2009ko udan zehar argitaratu ziren.

Ibilbideak motzak eta leunak dira

Bikasuetan txango motzak eta leunak dira, edozeinek egiteko modukoak. Oinezkoak hamar kilometro ingurukoak eta bizikletakoak 20

kilometro ingurukoak dira, ordu pare batean lasai egiteko modukoak, edo lasaia hartuta, goiz eta arratsalde pasa bezala burutzekoak.

Eskualdea, hala ere, nahiko maldatsua da eta beraz, aldapa batzuk ere topatuko dituzue ibilbideak egiterakoan. Kontutan izan herri-rik altuenek 400-500 metro inguru dituztela: Bidegoianek 489 m, Orexak 415 m eta Berastegik 406 m.

Xehetasunak, mapak, distantziak...

Ibilbideekin batera, bere xehetasunak, distantziak eta alturak grafiko batean, mapa eta bestelako informazioa topatuko duzue *Tolosaldean barrena*.

Gida Euskal Herri osoan banatuko da 'Berria' egunkariarekin eta Tolosaldean eskuratzeko, al-diz, bi modu daude: Tolosaldea Tourrek Tolosan dituen bi bulego-etara joatea (Santa Maria plazan eta Trianguloan) edo TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO Tolosako bulegotik pasatzea (Araba etorbidea, 5-Behea). Harpidedunek doan jaso ahal izango dute gure Tolosako bulegoan.

Gidarekin, hortaz, kirola egitearekin batera, eskualdea eta bere ondarea, paisaiak eta historia ezagutu ahal izango dituzue.



» IBILBIDEAK

Oinezko ibilbideak

- **Baliarrain.** Bostaitzetako ibilbidea.
- **Alkiza.** Aginagako ibilbidea.
- **Zizurkil.** Atxulondoko burdinola.
- **Zizurkil.** Zizurkilgo baserriak.
- **Alkiza.** Askantxoko ibilbidea.
- **Zizurkil.** Mendiko larreak.
- **Albiztur.** Galtzadatik barrena.
- **Tolosa-Aldaba.** Intxur ingurua.
- **Alkiza.** Alkiza-Zelatun.
- **Alkiza.** Alkiza-Urdanesi-Alkiza.
- **Albiztur.** Albiztur-Ortza-Albiztur.
- **Tolosa-Bedaio.** Bedaioko ibilbidea.

- **Altzo.** Altzomendiko ibilbidea.
- **Tolosa-Urkizu.** Urkizuko ibilbidea.
- **Leaburu.** Zazpibidieta.

Bizikletazko ibilbideak

- **Tolosa-Anoeta-Villabona-Amasa.**
- **Asteasu-Larraul-Zizurkil.**
- **Alkiza-Hernalde.**
- **Belauntza-Leaburu-Gaztelu.**
- **Berrobi-Elduain-Berastegi.**
- **Alegia-lkaztegieta-Baliarrain.**
- **Altzo-Lizartza-Orexa.**
- **Bidegoian-Albiztur.**
- **Amezketza-Abaltzisketa-Orendain.**

Laburrak

Uzturre taldearen bilera irekia hilaren 27an

TOLOSA • Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak bilera irekia egingo du hilaren 27an, asteartea, Corpus Christi parrokiko lokaletan 20:00etan. Alkoholarek eta bere ondorioen kalteak eta berreskuratzearren inguruan hitz egingo dutela argitu dute taldeko arduradunek. Bilerara alkoholak kalteturikoak eta euren senitartekoak gonbidatzen dituzte, baita ere argibide gehiago eskuratu nahi duten guztiei ere.

Tolosako Musika Banda bihar, Lopez Mendizabalen

TOLOSA • Tolosako Udalak urtero antolatzen duen Gaur Giro ekimenak aurrera jarraitzen du eta bihar bertan, hilak 23, Tolosako Musika Bandaren kontzertua izango da 22:30ean Lopez Mendizabal kalean. Datorren ostiralean, aldiz, hilak 30, Txileko Antumapu taldearen dantza folklorikoak ikusi ahal izango dira 22:30etik aurrera Euskal Herria plazan. Abuztuaren 4 eta 5ean aldiz, zinea izango da protagonista. Amaratx eta San Esteban auzoetan Pagafantak eta Death Proof filmak eskainiko dituzte 22:30etik aurrera.

Karmele Pellejeroren lanak irailaren 12a arte

HERNIALDE • Karmele Pellejerok Hernaldeko Ostatuan duen erakusketa luzatzea erabaki dute, eta hortaz, bere lanak irailaren 12a arte ikusi ahal izango dira. Pellejerok koadroak erakusten ditu bertan, bai paisaiak irudikatuz eta baita margolan abstraktuak aurkeztuz.



harpidedun izateak badu saria

① Afaria

Billabonako **Oinkari dantza taldeak** antolatuta, **uztailaren 25ean**, Euskal Jaia baitan, **gaueko 21:00etatik aurrera** izango den afarirako **2 sarrera bikoitz.**



② Abentura

Bizi Bizirik Larraitzen zabaldu berria duen **Txindokiko Itzala** parkerako, **bi sarrera bikoitz.**



③ Sarrerak

Gipuzkoa **Indoor Kartingek** Tolosan zabaldu duen **auto zirkuiturako 2 sarrera** (irabazle bakoitzarentzat bana).



④ Sarrerak

Errenteriako **Txikikaia** haur parkerako **5 sarrera bikoitz.**

Niessen merkataritzaz zentroa
943 107 888
www.txikikaia.com



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza



Kioskoari azken ukituak ematen ari dira. ENERITZ MAIZ

Baliarraingo plaza oinezkoentzat egokitu da berriketa lanekin

Baliarrain» Etzi egingo da inaugurazio ekitaldia, kioskoa eta haur parke berriak ere estreinatuko direlarik.

Bide batez, oinezkoentzako txoko hori behar bezala prestatu dute, haurrentzako parke eder bat eta kiosko bat eraikiz.

Oinezkoentzat mugatutako eremu izanik, erabilpen gehiago emango zaizkio plazari, azken ukituak falta dituen kioskoak iradokitzen duen gisan.

11:00etan hitzordua

Etzirako prestatu dute inaugurazio ekitaldia, eta ordurako prest izango da kioskoa ere. Haurren parkea eta plaza osoa dago orain-

dik inauguratzeke, baina herriko umeek ezin izan diote tentazioari eutsi, eta ederki estreinatu dute dagoeneko, beraientzat prestatu den parkea.

Lasai jolastu ahalko dira hemendik aurrera plazan, autoen beldurrik izan gabe.

Obrek iraun duten artean sartu dira azken ibilgailuak plazara, eta larunbatetik aurrera salbuespen kasuetan soilik ikusiko dira.

Herritarrek etzi izango dute plazaren irekiera ofizialera joateko aukera.

Bihar hasiko da XXI. Joxean Tolosa pilota txapelketa

Amezketan» XXI. edizioa, frontoi osoan eskuz-banakakoa izango da, eta bihar hasi eta irailaren 12an bukatuko da.

tza murriztu beharrean izan dira antolatzaileak, baina horrek maila hobetzeko aukera eman diela aitortu dute.

Euskal Herri osotik datozen pilotariak ariko dira beraz, bihartik hasita.

OIHANA IGUARAN

Bihar hasiko da Zazpi Iturri pilota eskolak urtero antolatzen duen Joxean Tolosa txapelketa. Guztia prest dute jada 21. ediziorako, biharko partidetatik hasita.

Jokatuko diren mailak kadete, gazte eta nagusienak izango dira.

Maila bakoitzean, gonbidatuez aparte, herrialde bakoitzeko txapeladunek hartuko dute parte, eta Euskadiko txapeladunen partehartzea ere ziurtatua dutela azaldu dute arduradunek, «Lemunoren salbuespenarekin», azaldu dutenez azken hau profesioletara pasa baita.

Aurten krisia dela eta, partaide-

»PARTIDAK

■ Bihar, uztailak 23, ostirala, 22:00etan

- 1-. Gazteak: Oronoz (Doneztebe)-Obregon (Gasteiz).
- 2-. Gazteak: Lizeaga (Hernani)-Loidi (Añorga).

■ Etzi uztailak 24, larunbata, 22:00etan

- 1-. Kadeteak: Nazabal (Zaldibia)-Hernandorena (Lekunberri).
- 2-. Gazteak: Santxo (Usurbil)-Urretabizkaia (Ikaztegieta).
- 3-. Gazteak: Irastortza (Andoain)-Gallurralde (Amezketan).



Iaz ere jendetza bildu zen partidak ikustera. SARA GOMEZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHOZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

E Elkarrizketa

Musika » Orintxe kaleratu berri dute Zeberio tolosarrak eta Maddi Oihenart zuberotarrak euren azken lana, 'Baldi'. Folk eta jazz ukituak aurkituko ditugu bertan.

OLATZ PEÑAGARIKANO

Urte asko eskaini dizkio Juantxo Zeberio (Tolosa, 1968) musikari. 2003an *Umama!* diska kaleratu zuen eta handik lau urtera honen jarraipena izango zen proiektua, *Umama2* deiturikoa. Euskal kantari askorekin ere aritu da lanean Zeberio, Imanol eta Benito Lertxundirekin, besteak beste. Egun, afizioa ofizio bihurtuta, Donostia-ko Jazzle eskolako piano moder-noko irakaslea da.

Beste behin, *Hari Biru* disko-ko taldeak lagunduta Maddi Oihenarten ahotsari doinu jarri dio tolosarrak, bere estilo naturalean. *Baldi* inprobisazio eta samurtasun ez beteriko diska dugu, 10 abesti ederrez osatua. Letrak euskal munduko poeta eta idazle ezagunek osatu dituzte: Kirmen Uribe, Itxaro Bordak, Leire Bilbaok, Bernardo Atxagak eta baita Maddi Oihenartek berak ere. Ez da esan beharrik euskal musikaz gozatzeko aukera paregabea dela honakoa. Honen inguruan hitz egin du Zeberio **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN.**

Pianista, jazzlaria... edota musikagilea da oro har, Juantxo Zeberio?

Bai, esan daiteke momentu honetan musikatik bizi naizela. Hala ere, gaur egun musikaria izateak ez dauka bide bakar bat, izan ere, jende gutxi dago musikaz bakarrik bizi dena. Horretaz gain, niri irakaskuntza gustatzen zait; Donostian nago lanaldi erdiz piano modernoaren irakasle bezala. Horrek ez dit ahalegin berezirik eskaintzen, irakaskuntzak egunero ko oinarria ematen dit eta bide batez, musika eremuetan nabil.

Zure piano doinua zoragarria da. Urte asko emango zenituen piano ikasten.

Bai, txikitari hasi nintzen. Gure etxean guraso biak musikazaleak izan dira, nahiz eta profesionalki ez diren horretan ibili. Beraz, musikazaleak ginen guztiok eta horren inguruan hasi ginen. Nik karrera bat ere ikasi nuen Gasteizen, hala ere, ez nion inoiz utzi pianoa jotzeari. Gero jazz munduan pixka bat sartu nintzen eta bat edo beste hasi zitzaidan deika. Egia esan, ez nuen pentsatu honetan ibiliko nintzenik, baina deitzen badidate zerbaitegatik izango da. **Diskoari dagokionez, zer dela eta 'Baldi' izena?**

Hitz hori Maddik hartu zuen zubererako hiztegi zahar batetik;



OLATZ PEÑAGARIKANO

«Diskoa egiteko prozesua oso polita eta lasaia izan da»

umila edo apala adierazi nahi du. Guretzako lan hau gauza handi bat da, baina, azken finean txikia. Gainera, izan bat ere aukeratu behar izaten da eta hitza soinu aldetik ere polita da.

Diskoa samurra eta leuna dela esan genezake. Asmo horrekin hasi zineten prestatzen?

Ez, disko hau osatzea bide bat izan da. Aurretik Maddik eta biok egin ditugu zenbait disko; hau prestatzerakoan ere planteamendu bera

«Barne bidaiak egiteko musika aproposa da 'Baldi'k eskaintzen duena, entzuten jarri behar da»

erabili dugu. Ez da helburu argirik egon. Abeslari bat eta kantu batzuk genituen eta horri koherentzia eman behar zitzaion, ezer galdu gabe. Izan ere, Maddik *a capella* abesteko ohitura ere badu eta bere ahotsari instrumentu gehiegi sartzean hondatu egin zitekeen abestia. Errespetuzko zerbaitegin nahi genuen eta, era berean, bakar-ka

egingo ez genituen bide batzuk jorratu ditugu. Diskoa entzuten duenak Maddi entzungo du, jakina, baina ez da betiko Maddi. Elkarlanean arituta zerbaite bereziagoa egin dugu era naturalean.

Eta zu jazz irakaslea izanik, ezin jazz ikuririk falta.

Badago inprobisazio elementu hori. Jazz mundutik gatozenok gauza asko idatzi egiten ditugu eta beste batzuk hor daude momentuan. Horren atzetik lan asko dago, noski. Bertsolariekin ere horixe gertatzen da: librea aritzeko gai dira aurretik lan asko egin dutelako. Maddik adibidez ez du inongo jazz formaziorik, baina Zuberoan asko inprobisatzen da. Disko honetan kantu bukaeretan nabari da hori. Hala ere, ez da gure helburua izan jazz koloreak ematea. Interesatu zaidanean erabili izan dut, baina akatsa litzateke Maddi terreneko horretara eramatea.

Ez da lehen aldia Oihenartekin lan egiten duzula. Nolako izan da berearekin bizitako esperientzia? Proiektu hau ez litzateke sortuko Maddi eta biok lagunak izan ez ba-

gina. Bi mundu desberdinak dira berea eta nirea, eta horren atzean adiskidetasuna dago. Askotan gertatzen gara lan egiteko elkarrekin, ni joaten naiz Maulera edo bera etortzen da. Bion arteko harreman

«Abestien magia asko gustatzen zait, bat-batean bizia hartzen dutela dirudi»

horrek sortzen du musika. Ez da izan enkarguz egin behar izan dugun lana. Esperientzia ona izan da, jakina.

Horretaz gain, euskal kantari askorekin aritu zara lanean (Imanol, Benito Lertxundi...) eta 'Umama' disko biak kaleratu dituzu. Dirudienez, jendeak gustoko zaitu. (Barreak) Zorionez! Beti da hori aberagarria. Honetan hasi nintzean Imanol zen kantari nahiko ezaguna. Horrek ez du esan nahi hobeagoa edo txarragoa zenik...Ni ez naiz lehen baino hobe, denborak ematen dizkizu esperientzia eta gauza asko ere bai, nos-

ki. Nire kasuan Imanolek deitu zidanean ikustezina izatetik merkaturatu egotera pasa nintzen. Gauzak txukun eginez gero jendea ezagutzen duzu, uste baino simpleagoa da. Benitorekin ere horrela izan zen, baten batek ezagutzen ninduen eta deitu zidaten. Kolaborazioak normalean horrela izaten dira. Beste kontu bat da nire baitatik sortzen diren proiektuak. Azken hau, adibidez, Maddirekin elkarlanean sorturiko proiektua da; neurri batean nire zati handi bat dago bertan, beti izaten duelako norberak zer kontatua ere.

Kantuen konposaketa eta moldaketa gehienak zuegin dituzu. Ilusio berezia zenuen honetan?

Bai eta ez. Aurreko diskoa, *Hari Biru*, eta hau berdinak izan dira prozesu aldetik. Hura haren ize-nean joan zen eta hau berri bion ize-nean. Konposaketak erdi bana-koak dira, baina musika moldaketa eta konposaketak nireak dira. Hala ere, konposaketak egiten ditudanean oso garbi edukitzen dut no-rentzako izango diren. Disko honetan dauden melodia batzuk espresuki prestatu dituhonetarako, beste batzuk aprobetxatu egin ditut ordea.

Abestien hitzak euskal idazle eta poeta ezagunek osatu dituzte. Ezin du edonork hori esan.

Bai, baina era naturalean gertatu da. Ez da egin gehiago saltzeko asmoarekin, zoritxarrez ez da hori gertatuko kasualitate izan da eta inguruko jendea genuela. Karlos Linazasoro tolosarra da, aurreko diskoetan ere parte hartu zuen. Maddi eta Itxaro Borda lagunak dira... Bernardo Atxagarekin gertatutakoa kuriozoso da. Bai Maddik eta bai nik, bakoitzak bere aldetik, Atxagaren poema bera aukeratu genuen Internetetik, kantu bat egiteko asmotan. Horrekin dena esaten da...

Zertan gozatu duzu gehien disko hau prestatzerakoan?

Diskoa egiteko bidea oso lasaia da, presarik gabe ibili gara. Prozesua bera oso polita izan da, berezia. Kantuek duten magia ere gustatzen zait, bat-batean bizia hartzen dute eta. Oro har, prozesua bera gustatu zait, oso emankorra baita. **Arrazoiren bat emango diguzu zuen azken lanaz gozatzeko.**

Ni ez naiz oso diskurtsozalea. Jendeak badaki zer entzuten duen eta zer gustatzen zaien. Nik zergatik entzuten dudan? Norabaitera eramaten zaituelako musika honek, eta behar bada ez du helburu hori. Barne bidaiak egiteko musika dela esan genezake; entzuten jarri behar dena. Horretarako, ordea, gogo behar da eta egun kosta egiten zaigula dirudi.

Noiz hasiko zarete kontzertuak eskaintzen?

Diskoa dagoeneko aurkeztuta dago, baina musikalki udazkene- tik aurrera mugitzea espero dugu. Ea zorrerik dugun, orain krisiarekin batek daki...



20°
15°

GOIZA EURIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 20°
HOTZENA 13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Aisialdia

■ **Tolosa.** Zikloia: La compaña del Saco Euskal Herria plazan 19:00etan eta Diego Magoa Aste-asuarra tabernan 22:30ean.

Jardunaldiak

■ **Villabona.** Ahozkotasuna kultur-jardunaldiak gaur, bihar eta etzi Subijana Etxean.

Deialdiak

■ **Berastegi.** Salontzo jai ei hasiera emateko, abuztuaren 6an, herri afaria egingo dute. Txartelak salgai Zelai taberna, Dendaberri, Urepele biltokia eta Basurde elkartean 16 eurotan (12 urtetik beherakoek 8 euro).

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Estetika. **09:00.** Muka-Muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur.
10:00. Kafe t'erdia. **10:30.** On ein!
11:00. Sakonduz. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Lekeitio zine.
12:30. Wazemank. **13:15.** Klipak. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kafe t'erdia. **14:30.** On ein! **15:00.** Sakonduz. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Lekeitio zine. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoa Kultura. **18:30.** Ikusmira. **19:00.** Danbaka. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Eskuokin.

(*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuta dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Ikatzako bezeroak «bikain» igerian

TOLOSA Pasa den igandean Getaria-Zarautz igeriketa itsasaldian Tolosako Ikatz tabernaren bezeroek osatutako taldeak hartu zuen parte. Emaizta «zoragarria» lortu zuten igerilari guztiek, ez federatuen taldeen

artearen nagusi izan zirela nabarmendu behar delarik. Uretan «benetan bikain» ibili eta gero proba bukatuta izan zen jai giroan ere «nagusi» izan ziren tolosarrak. HITZA

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>